

**ELAREN IRITZIA ENPLEGUKO POLITIKA AKTIBOAK
ERREFORMATZEKO ERREGE LEGE-DEKRETUARI
BURUZ**

2011ko martxoaren 28a

0- SARRERA

Espainiako Gobernuak otsailaren 18an onartu zuen premiazko Errege Lege-Dekretu bat, enplegua lortzeko gaitasunerako eta enplegu-politika aktiboak erreformatzeko.

Dekretuak, lanaldi partzialerako beharginak kontratatzen dituzten enpresek gizarte-kotizazioak ez ordaintzeko xedatzen duen dekretuarekin batera, Itun Sozial eta Ekonomikoaren (ISE) enplegu-politikei buruzko atala garatzen du; ISE, hain zuzen, CCOOek, UGTk, CEOEk eta espainiar gobernuak hitzartu zuten.

I- ERREGE LEGE-DEKRETUAREN EDUKIA

Errege Lege-Dekretua lau atalburutan banatzen da, zeinek Enpleguaren Legea aldatzen baitute:

I. ATALBURUA: Enplegu-politikako arau orokorrak

Espainiako Gobernuak, Lan eta Immigrazio Ministerioak proposatuta, Espainiar Enplegu-Estrategia onartuko du autonomi-erkidegoekin, enpresaburu-elkarteekin eta ordezkaritza handiena duten sindikatuarekin batera. Estrategiak 2011ko urriaren 31rako eginda egon behar du.

Urte anitzeko estrategia honek **Estatu osoan** aplikatzekoak izango diren ekintza eta neurriak zehaztuko ditu, helburu kuantitatibo eta kualitatiboekin, baita autonomi-erkidego bakoitzak bere baliabide ekonomikoekin garatzen dituenak ere.

Urtero, eta aurrekoaren baitan, enplegu-politikako Urteko Plana garatuko da; honek, **gainera, autonomi-erkidego bakoitzak politika aktiboak betearazteko eskumenak gauzatze aldera proposatzen duena jasoko du.**

II. ATALBURUA: Enplegu Zerbitzu Publikoak indartzea, Enplegu-Sistema Nazionalaren baitan

Atalburu honetan honako puntuak dira azpimarratzekoak:

- Lan-merkatuko bitartekaritzan lankidetzak publiko-pribatuari lehentasuna ematen zaio.
- Orain arte Legeak zioenez, ekintza eta neurriak enplegu eskatzaileei zuzentzekoak ziren. Orain lana duten pertsonak ere aipatzen dira.

III. ATALBURUA: Herritarrentzako zerbitzu-katalogoa eta arreta pertsonalizatua garatzea

Enplegu-Zerbitzu Publikoek (EZP) emandako zerbitzuak langabeei, lana duten pertsonari eta **enpresei** ere zuzenduko zaizkie.

Berria da *Herritarrentzako Zerbitzu-Katalogoa*; beronen helburua, berriz, "Estatu osoan enplegu-zerbitzu publiko eta doako bat berdintasun baldintzetan izateko

aukera bermatzea". Katalogo hau Lan Ministroak onartuko du, Enpleguko Sektore-Konferentziak akordioa hartuta gero.

Enpleguko ibilbide banako eta pertsonalizatua ezartzen da, langabeen eskubide eta EZPen betebeharrak gisa. Hasteko, banakako diagnostikoa zehazteko elkarriketa egingo da, eta enplegu-hitzarmen pertsonal bat sinatu. Honek esan nahi du onuradunak parte hartze aktiboa izango duela bere enplegua lortzeko gaitasuna handitzeko eta enplegua bilatzeko ekintzetan, baita enpresa-ekimen bati ekiterakoan ere, eta EZPak beharrezko diren ekintza eta neurriak esleitu eta planifikatzeko konpromisoa hartzen du. Hau ez betetzekotan Maila Sozialeko Arau-hauste eta Zigorren Legean aipatzen diren zigorrak aplikatuko dira (adibidez, prestazioak kentzea).

Ibilbide honen xedea langabeak duen profilaren diagnostikoa egitea da; enpleguari, autoenpleguari, lan-merkatuari eta enplegu eskaintzei buruz orientazioa eta informazioa ematea, baita prestakuntza eta denbora igaro ahala hartutako esperientziaren balioespena ere.

IV. ATALBURUA: Enplegu-politika aktiboak eraldatu eta beren eduki zein garapena berdefinitzea

Enplegu-politika aktiboak hainbat bider aipatzen dira, baina aipamen hauek ez dira oso argi geratzen. Adibidez:

- "Ekintza eta neurriak kudeatu ahal izango dira diru-laguntza publiko, kontratatze administratibo, hitzarmen, zuzeneko kudeaketa edota zuzenbidearen araberrako beste edozein forma juridikoren bitartez".
- **Enplegurako prestakuntzari** dagokionez, elkarriketa soziala bereziki aipatzen dela nabarmentzekoa da, sistema produktiboaren aldaketa eta eskaeretara moldatzeko modurik egokien gisa, baita negoziazio kolektiboak lanbide-heziketarekin izan behar duen lotura ere.

Nolanahi ere, badirudi ekintzak azpikontratatzekoan aukera zabalagoa eman nahi dela malguago eta orain arte baino kontrol txikiagoz jokatzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. Euskal Herriko eta Nafarroako autonomi-erkidegoak

Azkenik, Lege-Dekretuak Nafarroari eta EAERI buruz dio "enplegu-politika aktiboen finantziarioa Ekonomi-Itunaren eta -Hitzarmenaren baitan finkatuko da".

II-ELAREN IRITZIA

1. Errege Lege-Dekretuak Enpleguaren Legea aldatzen du, eta areagotu egiten du enplegu- eta prestakuntza-politikak zentralizatzeko haren joera. Hitzaurrean hitzez-hitz esaten da hau dela helburua: *“enplegu-politika aktiboei buruzko ahalmen araugilea, estatuari dagokiona, eta beroiek betearazteko eskumena, autonomi-erkidegoei dagokiena, hobeto uztartzea”*. Zentralizatzeko borondatea honako puntuetan islatzen da:

- Espainiar Enplegu-Estrategiaren ezarpena eta beronen garapena enplegu-politikako Urteko Planean.
- Herritarrentzeko Zerbitzu-Katalogoa finkatzea, Lan Ministerioak erabaki eta espainiar estatu osoan aplikatzekoa izango dena.
- Enplegurako prestakuntzaren diseinua, hau ere espainiar estatu osorako egingo dena.

2. Zentralizatzeko estrategia Espainiako Gobernuak, CCOOek, UGTk eta CEOEk hitzartu dute. Eredu honen funtsezko puntua da prestakuntza ereduak ez dela aldatzen. Askoren iritziz, haatik, egungo ereduak ez dio erantzun egokirik ematen langileen beharriaz, ez sistema produktiboak dituenari ere. Argi dago, halaber, CCOOek, UGTk eta CEOEk beren buruari izugarritzko dirutzak esleitzen dizkiotela, berez lanbide-heziketa zentroetara joan beharko liratekeenak.

3. Ikusten denez, enplegu-politiken norabide eta antolatzeko modu “berria” beste gai batzuetan gertatutakoarekin bat dator, adibidez lan-osasunean. Funtsean, kontua gauzei bere horretan eustea da, politikak eraldatu gabe.

4. Erreforma “egokitu” egiten da erreforma laboralak ezarritako aldaketetara, besteak beste, ABLEak sustatzea eta irabazi asmoa duten enplegu-agentzia pribatuen legeztatzea. Horregatik sustatzen da, enplegu-bitartekaritzan, lankidetzan publiko-pribatua. Hau Enplegu-Zerbitzu Publikoek hartu beharko luketen egitekoaren kontra doa, baita enplegua lortzeko aukera berdintasunaren kontra ere.

5. Herritarrentzako Zerbitzu-Katalogoa eta Enpleguko Ibilbide Banako eta Pertsonalizatua onartuta ere, hauek garatzeko bitarteko teknikoak eta pertsonala hobetzeko ez dago inongo konpromisorik. Gauza bakarra esaten da, mailaka egingo dela.

6. Enplegu-politika aktiboen finantziazioa erabakitzeko esparrua Ekonomi-Ituna eta Ekonomi-Hitzarmena izango dela esateak ez dakar aldaketarik. Adibidez, halaxe utzi dituzte EAEren esku enplegu eskumena. Baina hau gauzatzerakoan Jaurlaritzaren kaltetan izan da, bai eskumenei, bai ondorio ekonomikoei dagokienez.